

## ESPEZIALITATEAK IREKI DIRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN

### Eskabideak aurkezteko epea: ekainaren 22tik 28ra, biak barne

174/2023 EBAZPENA, ekainaren 21ekoa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Haren bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

#### GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

##### 590 – Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Laborategia
- Prozesu Lanak
- Elikagaien Elaborazioko Lanak eta Ekipamenduak
- Nekazaritzako Ekoizpeneko Lanak eta Ekipamenduak
- Diagnosi Kliniko eta Ortoprotesikoaren Prozedurak
- Osasun eta Laguntza Prozedurak
- Informatikako Sistema eta Aplikazioak
- Irudiko eta Soinuko Teknika eta Prozedurak

#### EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

##### 590 – Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Nekazaritzako Ekoizpeneko Lanak eta Ekipamenduak
- Osasun eta Laguntza Prozedurak
- Informatikako Sistema eta Aplikazioak

Eskabideak eta agiriak **bakarrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA** ataleko “Tramitatu” botoia sakatuta

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan



- Zerrendan sartzeko betebehar modura alegatu den tituluaren indarreko **espediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuari xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.

**Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez**, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaiek osatuko dute "masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)". Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.